



## **Eibarko Udaleko udaleku irekiak.**

### **Ohiko galderak | Zalantzak | Aldaketak**

#### **Aurre-matrikulan izenik eman ez badut, matrikula presentziala egin al dut?**

Ez, aurre-matrikula epearen barruan egin ez baduzu ezin duzu behin betiko matrikula presentzialarik egin.

#### **Matrikula presentziala derrigorrezkoa da?**

Bai. Aurre-matrikula egin duten haur guztiek behin betiko matrikula presentziala egin beharko dute. Beharrezkoa dugu haurren aitaren/amaren edo legezko tutorearen sinadura eta baimena izatea.

#### **COVID-19a dela eta, Udaleku irekiak egingo dira?**

Eibarko Udalaren nahia udalekuak egitea da, baldin eta Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren baimena badago eta Osasun Publikoak langileen eta haurren osasuna babesteko ezartzen dituen baldintzak bete badaitezke.

Dauden aurreikuspenen arabera, udalekuak hasterako, deseskaladaren III. fasea amaituta egon behar da (2020ko ekainaren 21erako aurreikusitako data), eta normaltasun berriaren fasean egongo gara. Fase hori bere garaian ematen diren antolakuntza-jarraibideen arabera arautuko da. Segurtasun- eta osasun-protokolo berriak ezarriko dira, aurreko faseetako esperientziak erakusten duenarekin eta osasun-agintariek ezartzen dutenarekin bat etorritz.

Konfinamendua arintzeko faseen bilakaera ezagutzea ezinezkoa denez, kolonien antolaketarekin eta kudeaketarekin jarraitzen dugu, baina EIBARKO UDALAK EDOZEIN UNETAN BERTAN BEHERA UTZ DITZAKE UDALEKUAK, gobernuak eta osasun publikoak ezarritako arauetara jarraituz.

#### **Noiz izango da matrikula presentziala? Non?**

Momentuz ez dugu matrikula presentzialerako datarik. Matrikulazio datak Eibarko Udalaren web orriaren eta sare sozial ofizialen bidez jakinaraziko dira. Informazio hori udalerriko ikastetxeetara ere bidaliko dugu, familiei beren ohiko bideak erabiliz, dela gurasoen elkartetik, dela ikastetxeko zuzendaritzatik, bidali diezaieten.

Behin betiko matrikula egitekotan, ekainaren lehenengo hamabostaldian egitea aurreikusten dugu.



Behin betiko matrikulazioa egiteko tokia Indianokua gaztelekua izango da ziurrenik. Segurtasun-distantziei dagokienez, matrikula berme guztiekin egiteko lekua prestatuko dugu.

Behin betiko matrikulazio-orria betetzeko, eskatzen dizuegu, ahal duzuen neurrian, boligrafo bat eraman dezazuela etxetik.

Behin betiko matrikula burutzeko bi dokumentu aurkeztu behar dira:

- 1.- Udalekua ordaindu izanaren ordainagiria.
- 2.- Haurraren OSAKIDETZAREN txartelaren fotokopia.

### **Noiz arte eman ahal dut baja?**

Behin betiko izen-ematea egin aurretik. Aurrematrikula egin baduzu eta udalekura ez joatea erabakitzen baduzu, baja eman behar duzu Astixan abisatuta.

ASTIXA A. Z.: 943 708 435

### **Ze kontu korrontetan sartu behar dut dirua?**

Astixa A. Z.: ES98 3035 0023 9402 3008 2137

Sartu beharreko diru kopurua amaierako taulan kontsulta dezakezu

### **Udalekua bertan behera uzten bada ordaindutako dirua itzuliko da?**

Bai. Udalekuak egiterik ez badago eta Eibarko Udalak koloniak bertan behera utzi behar baditu, sartutako dirua itzuli egingo da.

Udalekuak bertan behera uzten ez badira, behin betiko matrikula egin ondoren familiak haurrari baja ematea erabakitzen badu, ez da itzuliko ordaindutako dirua.

### **Eta guraso bilera?**

Oraindik ez dakigu bilera horiek ohiko moduan egin ahal izango ditugun. Udalaren web orriaren eta sare sozial ofizialen bidez jakinaraziko dugu bilera horiek egiten ditugun ala ez eta nola egingo diren.

### **Haurrek nolako Udalekua izango dute?**

Izena emateko epea amaitu ondoren, udako programa erakargarria eskaintzeko lanean ari gara. Argi izan behar dugu, aldez aurretik, ez direla aurreko urteetako udalekuak bezalakoak izango. Aurten prestatzen ari garen udalekuetako jarduerak udalerraren inguruan izango dira. Oraingo ez dago erabakita, baina seguruenik ez da hondartzarako irteerarik egongo, ez eta egun osoko autobus irteerarik ere.

Era berean, ezin dugu jakin Eibarko igerileku estaligabeak irekita egongo diren, ez eta, irekita egonda ere, zenbateko edukiera izango duten.



Eibarko Udalak uste du aurten hondartzara eta/edo igerilekuetara joan ezingo den arren, udaleku ireki erakargarri eta dibertigarriak eskain ditzakegula herriko umeentzat, gure ingurune hurbilena hobeto ezagutzeko eta beroari aurre egiteko, besteak beste, ur-jokoak antolatuz.

Udalarentzat garrantzitsuagoa da begiraleek haurrekin egiten duten lana, gozatu eta uda ahaztezina izan dezaten, jarduerak egiteko tokia baino. Beste aukera batzuk ere bilatzen ari gara, eguraldiak laguntzen ez badu.

### **Autobusez eginiko egun osoko irteerarik egongo al da?**

Ez dago erabakita, baina litekeena da ez egotea.

### **Ze ordutegi izango du aurtengo udalekuak?**

Oraindik ez dago erabakita, baina egun osoko irteerarik ez badugu, egunero, astelehenetik ostiralera, ordutegi bera izateko aukera aztertzen ari gara. Adibidez, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. (adibide bat da, besterik ez). Behin betiko matrikula egiterakoan emango dira ordutegiak.

### **Zenbat haur egongo dira talde bakoitzeko?**

Talde bakoitzeko haurren ratioa aurreko urteetako baino txikiagoa izango da, baina oraindik ez dakigu zein izango diren kopuru zehatzak. Monitore bakoitzak 9-10 ume inguru izango dituela uste dugu, baina Gobernuak ratio berriak emateko zain gaude.

### **Garbitasun eta segurtasun neurriak hartuko dira?**

Osasun Publikoak ezartzen dituen higiene- eta segurtasun-neurri guztiak ezarriko dira, begiraleen eta haur guztien osasuna zaintzeko.

Jolasak amaitutakoan, ezer jan aurretik edo monitoreek beharrezkotzat jotzen duten edozein unetan eskuak garbituko ditugu.



## 2020ko Tarifen taula

| TARIFAK   Tarifas   |                                       | Udan jolasean (2014) | Oporrak Afariketan (2008-2013) | Udan jolasean + Oporrak afariketan                             |
|---------------------|---------------------------------------|----------------------|--------------------------------|--|
| 3 ASTE<br>3 Semanas | Haur 1   <i>Niño/a</i>                | 60€                  | 90€                            | X  |
|                     | 2 ANAI-ARREBA<br>2 <i>Hermanos/as</i> | 100€                 | 160€                           | 140€   |
|                     | 3 ANAI-ARREBA<br>3 <i>Hermanos/as</i> | 140€                 | 230€                           | Astixarekin harremanetan jarri.<br><i>Contactar con Astixa</i> |
| 2 ASTE<br>2 Semanas | Haur 1   <i>Niño/a</i>                | 40€                  | 60€                            | X  |
|                     | 2 ANAI-ARREBA<br>2 <i>Hermanos/as</i> | 70€                  | 100€                           | 90€  |
|                     | 3 ANAI-ARREBA<br>3 <i>Hermanos/as</i> | 100€                 | 140€                           | Astixarekin harremanetan jarri.<br><i>Contactar con Astixa</i> |

Beste zalantza batzuk badituzu edo argibide gehiago behar baduzu Eibarko Udaleko Kultura saileko HAURRERIA eta GAZTERIA Koordinatzailearekin harremanetan jarri, ondorengo telefono eta helbide elektronikoan:

**943 708 435** eta **gazteria@eibar.eus**

Informazioa argitaratuko dugun sare sozial eta webgune ofizialak:

<https://www.eibar.eus/eu/kultura>

<https://www.facebook.com/Eibarko-Haurreria-eta-Gazteria-906612399420071/>